

IRIZPENA 10/17

M^a Luisa García Gurrutxaga
Iñaki Azpitarte
Javier del Campo
Candido Hernández
Marian Jauregui
Paco Luna
Ismael Redondo
Raimundo Rubio
Ana Puente
Eva Blanco, (Idazkari teknikoa)

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2010eko abenduaren 9ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: *EAEko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko aukeraketa prozedura eta EAEko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko prozedura deitzen duen Agindu proiektuari buruzkoa.*

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hamaikagarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatiak eta otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 16. artikulua zehazten dute karrerako funtzionario irakasleak hautatzeko deialdi publiko bat egingo dela eta oposizio-lehiaketa bidez izango dela.

2/2006 Lege Organikoaren Hamazazpigarren Xedapen Iragankorrak zehazten du Lege hau ezartzeko urteetan irakasleen funtzio publikora sartzeko egingo den hautespen prozesuko lehiaketa fasean kontuan hartuko direla prestakuntza akademikoa eta, lehentasunez, hezkuntza etapa horretako ikastetxe publikoetan lehendik izandako esperientzia irakaskuntzan, legeak baimentzen dueneraino. Oposizio fasean proba bakarra izango da eta bertan aztertuko dira kasuan kasuko espezialitateko edukiak, gaitasun pedagogikoa eta zenbateraino menderatzen diren irakasteko beharrezkoak diren teknikak.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko Irakasleen kidegoak sortu zituen, eta horien artean deialdi honek aipatzen dituenak.

Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak arautzen du Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzan jarduteko behar den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak (zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta horiek eskuratzeko araudia eta aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrera erregimen iragankorra) ezartzen du VI. Izenburuko xedapenak aplikatuko direla Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak indarrean dirauen bitartean deitzen diren prozeduretan.

Bestalde, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 52.etik 55.era bitarteko artikuluek espezialitate berriak hartzeko prozedura arautzen dute. Hezkuntza Administrazioek dagozkien deialdien bidez zehaztuko dute zein espezialitate har daitezkeen aipatu prozeduraren bitartez eta deialdia egin duen Hezkuntza Administrazioaren menpe dauden karrerako funtzionarioek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

II.- EDUKIA

Agindu proiektu honek bi artikulua eta azken xedapen bat ditu. Oinarriak eta sei eranskin ere atxikitzen dira, non jasotzen baitira sarrera libreko eta ezinduentzako erreserbako txandetako merezimenduak baloratzeko baremoa, funtzionario irakasleen kidegoen txandetako merezimenduak baloratzeko baremoa eta baita ere Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoen titulu baliokideak; halaber atxikita daude kidego bakoitzari dagozkion ikasgai-zerrendak eta espezialitate bakoitzari dagozkion curriculumak onartzen dituzten dekretuen zerrenda. VI. eranskinak Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoko froga praktikoa jasotzen du.

Lehen artikulua bi deialdi egiten ditu: EAEko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoan eta Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoan sartzeko hautaketa prozesuetarako deialdia; eta EAEko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak hartzeko prozedurarako deialdia.

Bigarren artikulua bi hautaketa probetarako oinarri arautzaileak onartzen ditu.

Azken xedapenak helegiteak jartzeko epeak zehazten ditu.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak positiboki baloratzen du 1515 lanpostuko eskaintza berri hau, uztailearen 6ko 185/2010 Dekretuan jasotako oinarri akordioan adostutakoari jarraiki, zeinaren bidez onartzen baita EAEko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen akordioa. Gure iritziz, deialdi honekin sendotasuna emango zaio hezkuntza sistemari eta bitartekotasun tasak murriztuko dira.

Agindu proiektu honek kidego desberdinetan sartzeko prozeduren oinarriak onartzen ditu, 4 txanda bereiziz: librea, ezinduentzako erreserba, goi-mailako irakasle kidego batean sartzea eta talde nahiz jomugako osagarri maila bera duen irakasle kidego batean sartzea. Oinarri hauetan jasotzen da *otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa, zeinaren bitartez onartzen baita irakasle kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta horiek eskuratzeko araudia*. Dekretu hori oinarritzakoa da eta bat dator aurreko deialdietan erregulatuta zeuden alderdi batzuekin.

Nolanahi ere, Kontseiluak hainbat ohar egin nahi ditu:

- Oinarrien 5.1 atalak zenbait salbuespen ezartzen ditu hautaketa organoetan parte hartzeko; zehazki, aipatzen ditu ikasturte horretan zuzendari, ikasketa-buru eta idazkari karguak dauzkaten funtzionarioak eta baita ere azken hautaketa prozesuetan parte hartu zutenak.

**Kontseiluaren iritziz, atal berean sartu beharko lirateke sindikatueta-
liberatuak, legeak prozesuaren garapena kontrolatzeko ematen dien presentzia
bermatzeko.**

- 9.1.2.1 e) atalean aipatzen dira zeintzuk diren azken puntuazioan berdinketa ematen den kasuetan ebazpena lortzeko aplikatuko diren irizpide hierarkizatuak. Berrito azpimarratu nahi dugu 2009ko maisu-maistren LEPari buruzko irizpenean adierazitakoa: ez zaigu beharrezkoa iruditzen “e) irizpidea, “Kidego batean emakumeen presentzia %40 baino txikiagoa den kasuetan” aplikatzen dena, maisu-maistren kidegoaren kasuan emakumeen presentzia %80 baino handiagoa baita. Aitzitik, gizonezkoen aldeko diskriminazio positiboko neurriak hartu beharko lirateke gizonezko irakasle gutxien dauden etapetan, esaterako, Haur Hezkuntzan, kontuan izanik haurren garapen afektiborako hobe dela bi sexuetako erreferentziazko irudiak edukitzea.”
- 13. atalak praktika aldia erregulatzen du eta ezartzen du irakaskuntza jardunean aritu beharko dela sei hilabetez, salbuespenak salbuespen; azken kasu horietan ere, gutxienez hiruhileko bat baino gehiagor aritzea eskatuko da etenik gabe. Bestalde, 276/2007 Errege Dekretuak dio praktika aldia hiruhileko bat baino luzeagoa baina ikasturte bat baino laburragoa izango dela eta prestakuntza ikastaroak ere barne har ditzakeela.

Uste dugu praktika aldiak irakaskuntzarako daukan garrantzia dela eta, komenigarria litzatekeela epealdi luzeagoa aukeratzea, ahal den neurrian ikasturtearekin bat datorrena. Edonola ere, salbuespenak arautu beharko dira, esaterako, praktiketako irakaslea gaixorik dagoen kasuetan.

- Espezialitate berriak eskuratzeko txandan espezialitate bakarra eskuratzeko aukera jasotzen da: Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Hizkuntza eta Euskal Literatura espezialitatea.

Kontseiluaren iritziz, prozedura hori ireki egin beharko litzateke beste espezialitate batzuk ere barne har ditzan, bai Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan eta baita ere Lanbide Heziketakoan.

- Azkenik, hizkuntzen ezagutzari buruzko hausnarketa bat egin nahi genuke, zehazki ingelesari buruz:

Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuaren bitartez derrigorrezko bigarren hezkuntzan, batxilergoan, lanbide heziketan eta erregimen bereziko ikaskuntzetan irakasteko prestakuntza baldintzak definitzen dira eta bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoetako espezialitateak ezartzen dira. Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarriak hauxe dio: "Hezkuntza Administrazioek arautuko dituzte atzerriko hizkuntza ez den beste ikasgai edo eremu bat hizkuntza horretan irakatsi ahal izateko irakasleek behar duten prestakuntza gehigarriaren baldintzak, irakaskuntza elebiduneko hezkuntza proiektuak dauzkaten ikastetxe publiko nahiz pribatuetan. 2010-2011 ikasturtetik aurrera, atzerriko hizkuntza gutxienez Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Komuneke B2 mailan menperatu beharko da.

Gure iritziz, kontuan izanik ingelesez irakasteko gai diren gero eta irakasle gehiago behar direla, egokia litzateke ingelesaren jakintza gehiago baloratzea eta baldintza modura ezartzea epe ertainean zenbait plaza eskuratzeko, batez ere ikusirik eredu hirueleduna ezar litekeela etorkizunean eta horrela ikasleek atzerriko hizkuntzan komunikatzeko duten gaitasuna hobetu litekeela.

Bestalde, aginduaren baremoak hauxe dio: "0,5 puntu emango dira maila aurreratuko edo EOI mailetakoz ziurtagiri bakoitzagatik". Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak dioen bezala, maila aurreratua B2 mailari dagokio. Bestalde, otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak (zeinak erregimen bereziko hizkuntza ikasketak txertatzen baititu EAEn eta curriculumak ezartzen baititu ikaskuntza horietako maila guztietarako: Oinarrizkoa, Maila Ertaina, Aurreratua eta Gaitasuna) dio maila aurreratua B2 dela eta gaitasun maila berriz C1.

Kontseiluaren iritziz, puntu gehiago eman beharko litzazkioke B2 maila eta C1 eta C2 ziurtagiriak dauzkanari.

Akats bat dago 2.1,b) atalean: hamasei urte beteta izatea jartzen duen tokian "hemezortzi urte" jarri beharko luke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2010eko abenduaren 9an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sinatua: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sinatua: M^a Luisa García Gurrutxaga

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURU ANDREA